

zakilixut

© Olariagak



KATE MOTZEAN

Juan Kruz Lakasta

«Euskarakadak botatzen ditut»

■ **Amonak dio zure saiora joaten direnak ezin direla euskaldun izan.**

Gehienak erdaldunak dira. Arrazoi du.

■ **Nik amonari esaten diot, zein gaizki dantzatzaren diren ikusita, euskal herritarrek behar dutela izan.**

Euskal Herrikoak dira gehienak, baina Logroñotik ere etortzen dira. Denetik dago. Ondo mugitzen den jendea ere etortzen da.

■ **Gorputza ez ezik, mingaina ere gogotik jartzen dute dantzari. Zer bultzatzen ditu horretara?**

Haiek esan beharko lukete. Batzuek, lasaitu eder bat hartzeagatik egingo dute; beste batzuek, lagunekin ondo pasatzeko, besterik gabe; eta beste batzuek, ospeko bost minutu horien bila.

■ **Zerk bultzatzen zaitu zu *Esta es mi gente* egitera?**

Kazetari garen aldetik, gustatzen ez zaizkigun baina egin behar diren galderak egitea tokatzen zaigu, zer arlotan ari garen. Nik orain era horretako galderak egin behar ditut.

■ **Zure arazo pertsonalez galdetzen badizut...**

Nire arazoak nireak direla erantzungo dizut.

■ **Zure erdara entzunda, ezin uka daiteke euskalduna zarelara.**

Euskaraz pentsatzen dut eta kosta egiten zait gaztelaniaz egitea. Saiatzen naiz, baina askotan euskarakadak botatzen ditut.

■ **Berrikuntza bada ETBn erdarakaden orde euskarakadak entzutea.**

Ez pentsa ondo iruditzen zaidanik. Hizkuntza guztiak ondo hitz egin behar dira, bai euskara, bai gaztelania eta bai inglesa, edozein hizkuntza.

■ **Euskarakadak arazoa izan daitezke Madrilera salto egiteko: *Esta es mi gente* tranpolin bikaina da.**

Bai, baina nik ez dut saltorik egin nahi.

■ **Ezin zara mondejurik gabe bizi?**

Ezin naiz nire jenderik gabe bizi, eta nire jendea, nire familia, hemen dago.

■ **Zure senideak omen dira zure kritikorik hoberenak. Zer diote?**

Pixkanaka-pixkanaka hobetzen ari naizela, geroz eta konfiantza

IZARO IRAETA

KAZETARIA

Zaldibia, 1973. Ikasketak amaitu aurretik hasi zen telebistan lanean. Berriki 'Esta es mi gente' ETBko saiorik ikusiena aurkezteko lana hartu du. ETBko aurpegi biziena. Madrilgo estilista batek kopeta-ile tristemak esan dio.



«Tranpolin onean egon arren, ez dut Madrilera saltorik egin nahi»

handiagoarekin ari naizela. Eta horrela jarraitzeko esaten didate.

■ **Ikusle datuek ongi ari zarela diote.**

Hori ez da nire meritua, saioare-

na baizik, eta saioa hor dagoen talde osoak egiten du.

■ **ETBn gehien ikusten den saioa da. Zer gogoeta egin daiteke horretaz?**

Orain jendeak burua nekatuko

ez dien ondo pasatzeko saio ari nahi dituela. Orain hau dago modan. Bihar, nork daki.

■ **Pena da Madrilera ez joatea. Edertuko zintuzten, Patricia Gaztañaga eta Emma Garcia edertu dituzten bezala.**

Oso ondo ateratzen dira, baina ez dakit zergatik izango den.

■ **Esan didate Madrilgo estilista jarri dizutela, eta kopeta-ilea alaitu nahi dizula.**

Noizean behin ETBra Madrilgo estilista talde bat etortzen da. Aurpegia bizitzeko aurreko ileak argitu dizkirate. Handik etorrita, zerbait egin behar.

■ **Amonak dio errain perfektua zarela.**

Hori nire amaginarrebari galdetu beharko zenioke.

■ **Amona alde batera utzita, zein heinetan da garrantzitsua irudia telebistan?**

Irudia baino garrantzitsuagoa da telegenia; irudi ona edo txarra edukitzea baino gehiago, daukazu irudiarekin transmititzen jakitea.

■ **Intelektual peto-petoaren irudia eman duzu ETBren azken promozio bideoan, liburu inguraturik, aipua egin ez. Ikaragarria.**

ETBko promozio sailekoen kontua da. Schopenhauerrenak baino liburu normalagoak irakurtzen ditut. Eta horrekin ez dut esan nahi Schopenhauer anormala denik.



Megadenda, zure aukera musika eta liburuan

www.megadenda.com